

## 2 ARIKETA

Eskualde baten funtzionamendu eredua

# hirigintza 1



### HELBURUAK

Lehen ariketan lan eremua Euskal Herria izan bada, bigarrenko ariketa honetan Nerbioi ibaiaren bi eskualdeak izango dira aztergai.

Ariketaren egitasmoak:

Ibaiaren 2 eskualdetako hiri sistemen funtzionamendua grafikoki adieraztea

### EGITEKOA

Hirian gertatzen diren fenomeno desberdinen kokapena aztertuz, proposaturiko lan eremuaren hiri sistemen funtzionamendu eskema gauzatzea eskatzen da.

Galdakaotik hasi eta itsasertzeraino bi ibaialdeetan gertatzen diren fenomenoak azaldu behar dira

Aztergaiak:

Hiri sistemen egituratze elementuak (geografikoak, azpiegiturak)

Hirien biztanleria kopuruaren arabera hierarkia

Zerbitzu, komertzio, industrialde, ekipamendu etab...en kokapena eta hauen hierarkia (okupaturiko azaleraren arabera)

Aztergai guztiak eskema/diagrama/mapa bakar batean uztartu behar dira

Bestalde, grafikoki azaldu beharko da, behin aztergai guztien kokapen, hierarkia, egituratze eta beraien arteko harremanak adierazita, hiriaren funtzionamendu hipotesia

Adierazpen sistema askea da; ordenagailuz, eskuz, maketa, collage

### EMATEA

Urriak 23, praktika klase hasieran